

Sara Nieves

Jose de Azpiazu audizioko txapeldun






2000ko azaroa 29, aldea

Badihardugu
Deba Ibarreko Euskera Elkartea

Badihardugu
Deba bailarako euskalzalien
Topagunia

HERRI ERDIRA HELTZEKO BIDE BERRIA - PERIXA ETASH
AITOR PRIETORIEK AKARRIZKEIA - SORALUZEKO SENDOTZA



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak
Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 Soraluze

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

*Haizea dakar...
bere baitan idatzia ote
zerorren izena?
Mila koloreen artean
da zure begirada galdua,
bizitzaren legeari
uko egin nahian
jostakari zu
adarrari tinko atxikita.
Halabeharraren haizehegoak
jo du agurraren atea
eta tristurari darion
negar malko gisa
oldartu da zure edertasuna
amildegian barrena*


HOSTO...ORBEL

*Haizearen besoetan
utzi diozu hosto izateari
eta orbel
bilakatzen horretan
ez da zure edertasun hori
areagotu baino.
Orain bazoaz
azken bidaian galtzera
Garaiaren iparrorratzak
eramango zaitu
batetik betera
noizbait berriro
hosto bihurtu arte...*

...

Kolaborazioa

Telebista zeruetan zarana ...



Telebista, zeruetan zarana, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreñua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurtean ere. Ez, ez da broma. Jesukristo piztu zan moduan pizten dogu egunero telebista eta telebista bihurtu da gaur eguneko jaungoiko. Bere sinestun bihurtu gara ixa danok (persona normalen bat ez, beste danok), sinestun itsuak gainera. Bera da gure salbatzaile. Toki guztietan dago. Gu be beti gare bera entzun eta ikusteko zain. Horretan bestia jangoikua baino hobia da behintzat, nahiz eta bestien moduan honek be ez daben entzuten, hau ikusi eta entzun egiten leike. Tira, ondo pentzautu ez, horretan be bixak dira antzerakuak, bixak dauzke aurkezliak, jangoikua gordeta dago eta ez da sekula agertzen.

Mirarixen kontuan be, antzera dabitz bixak. Kontatu bai, baina ipuinak. Santo Tomasek bilatu zeban erremedixua harendako, "ikusittakua sinistu", baina horrek be ez dau balio telebistaren erlijio berri honetan, ikusi ikusi, ustez ikusten dogu eta.

Jangoiko berri honek zela jantzi, zer jan, zertaz eta zela berba egin eta zela bizi bihar garan be badiosku. Erlijio berri honetan Tamara da Ama Birgiña (aldatzen ez dan arte), baina santuak eta deabruak beti dira berdinak (Euskal Herrixan behinpein). Estatu Batuetan dago Batikano Hiria eta ziuraski, Aita Santua be hantxe egongo da (oraindak ez dabe aukeratu baina). Inkizizioa inoiz baino indartsuago dago eta pekatari jendea hiltzaten dau gurutzian (nahikua da euskalzalia izatia hortarako).

Amaitzeko hemen mezen ordutegixa:

Mezak:

Egunero egunero, goizian, atsaldian eta gabian sukalde danetan.

Meza nagusixa:

Domeketan arratsaldeko 19:00etan Txokuan.

Telebistaren erreñuan bizi gara eta ez gara geure buruaren jabe.

Sermoi aspergarrixa izan bada, ba barkatu.

Argi ibili eta etorkizunian sinistu.

Ondo bizi eta Amen.

Egoitz Unamuno
N.A.N. 72.313.560

Editoriala

Hasi baino lehen, irakurle maittia, eskatu nahi dogu editorial hau irakurri eta gero, gorputzian geratuko jatzun sentsaziñua, gu tirabira edo liskar bila gabizenekua ez izatia. Oin irakurriko dozuna datu objetibuetan oinarritzen dan idatzi bat besterik ez da.

Askotan, bizitzan zihar pentsau izaten dogu, badarela gauza asko isilik lagatzia besterik merezi ez dabenak. "Zertarako esan ezer?" eta isildu egitten gara. Baina beste batzuetan, bakoitzan "amor propixuagaittik" bakarrik ez bada be, ezin gara isildu. Baina isiltasun hau apurtzia ez da garrasika hasi eta leluan pare zarata etaratze soila, baizik eta arrazoi jakin batzuegaittik minduta sentitzen danan ahotsa.

Danok goguan edukiko dogu zelan urte hasieran Soraluzeke Udalak herrixari herriko barri instituzionalen informaziñua emoteko aldizkari bat sortu zebala, oso itxura onekua gainera, gauzak diran moduan onartu bihar dira. **Pil Pilean**ekook benetan sentidu ginuan hau, herrixan bertoko barrixak kaleratzeko (instituzionalak izan ala ez) aldizkari bat egonda beste bat sortzia ez bait jakun oso egokixa irudittu. Onartu bihar da erderaz be badatorrela aldizkari hau, eta **Pil Pilean** ez, gu, euskara, euskal hizkuntza, bultzatzeko aldizkari bat besterik ez gara ta... Hor arte, ez dago inori ezer aurpegiatzerik.

Baina bidezkoa ez dana, eta zerbait bidezko ez danian salatu egin bihar da, ondorengua da; onartzu "Soraluzeke Udala" aldizkarixa, udalian eta udaletxian gertatzen danari buruzko informaziñoz jantzitta datorren aldizkarixa dala, zergaittik ahaztu dau danona izan bihar leukien aldizkarixak, bere bigarren alian, esaterako, azken hilabete honetan Gobernu Batzordian pasau dana sakonki aztertu eta honetaz informatzia? **Pil Pilean**ek ez dau esan nahi Udaletxian gertatzen dana ondo edo gaizki daganik, ez bait dira gure kontuak, baina eskatzen doguna alderdi on eta baita txarrak be azaltzen dittuan aldizkarixa da.

Bukatzeko, aldizkari horren kolore eta argazki politxen iturburua aztertuko dogu, "Soraluzeke Udala" aldizkarixan datorren "Dohaineko Alea" koletilia komentauaz. **Pil Pilean**ek 750.000 pezetatoko suben-ziñuakin 11 ale etara eta hamaikatxo ekintza antolatzen dittuan artian, udaletxeko papeletan jende guztiandako ikusgai dauan moduan, diru kopuru bera bideratu da aurren "Soraluzeke Udala"ren bi ale soil kaleratzeko. Azken finian, beraz, ez da hain dohainekua ez?

Azkenik komentau, editoriala, aldizkari baten pentsakera kolektibua azaltzeko bidia besterik ez dala, eta faltsua dan daturik ez dala argitaratu editorial honetan. Badakigu **Pil Pilean**ek akats asko dittuala (pilo bat) baina gero eta herrikuagua, zabalagua eta azken finian kalitate hobeagokua egitten saiatzen gara, jende askoren ahaleginarekin.

Besterik barik, erabakixak hartzen dittuanari eskaeria: kritikak beti dirala onak, konstruktibuak baldin badira, eta hau bada, gainera **Pil Pilean** beti egon izan da edonokin berba egitteko prest. Zuzen egindakuak txalotzen dittugun moduan, okerrak zuzentzia be eskatzen dogu.

Eskerrikasko Soraluzeke herritarrori emoten doskuzuen laguntza danagaittik. Eskerrikasko benetan.

Argitaratzailea: Pil Pilean Kultura Elkarte. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze. Telefonoa 943 75 13 04

Lan taldea: Egoitz Unamuno, Eduardo Pombar, Gurutze Ariznabarreta, Aitor Madrid, Amaia Agirre, Elene Alberdi, Oier Oregi, Gorka Prieto, Xuban Catalan, Sabin Mendizabal, Ander Epelde, Izaskun Gartzia, Jon Oregi, Enara Agirre, Arianne Unamuno, Maria Azkona, Gorka Salaberria eta Ugaitz Catalan.

Posta elektronikoa: Pilpilean@euskalnet.net

Publizitatea: Elene Alberdi eta Gurutze Ariznabarreta (943751304 tel.)

Banaketa: Pil Pilean

Tirada: 1800 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Lege-gordailua: SS-537-2.000

C.I.F.-a: G20696563

Azala: Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid



29.alea
2000ko azaroa

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.



**Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru
Aldundiaren dirulaguntza
jasotzen du
euskara bultzatzeko**

Guk be Vip izan gura dogu

Soraluzen autuakin laupabost buelta emon eta gero bakarrik VIP-ak apartatzen dabela ondo konturatu naiz. Geruago eta oiñezkuendako kale gehixago ei dare eta hori ez da txarra. Umiak be jolastorduan nun jolastu edukitzia ez da bape txarra, biharrezkua dala esango neuke. Zuluak be egin biharko dira, baiña zenbat hillabete daroie Santa Ana kalia zuluak egitten? En fin.

Hau danau Zubixan obrak dirala eta aparkatzeko leku gutxiago daguala kontuan hartuta, Erregetzeko aparkamentuan goizetan ezin dala aparkau jakindda, eguenetan azokia egoten dala eta han be ezin dala aparkau ikusitta, zubixan karga eta deskargarako daguan lekuakin lotu ezker eta Udaletzeko langille fiñak dauken VIP-endako parking-akin errematau: nun aparkau geinke autua? multak ipintziakin nahikua izango ete da hau arazuau konpontzeko? Zegaittik ezin geinke hasi VIP-entzako lekua herriko zein kanpoko danondako aparkatzeko lagatzen besterik ez daguan bittartian? Edo hau ez bada bidietako bat, zein urtenbide dago pentsauta eta noizko?

Iban Arantzabal Arrieta

Soraluzeko Udala aldizkaria

Dena esan behar da eta pertsonalki penagarria eta lotsagarria da "Udala" aldizkariaren presentzia herrian. Sakonki irakurri ostean aldizkari horrek EAJren hauteskunde kanpainako panfleto bat dirudi, dena ondo egingo balute bezala aurkezten dute lotsa izpirik gabe herri osoaren aurrean, baina egia esan, egindako akats guztiak ezkutatzuz lortzen du aldizkariak horrela ko planta.

Ostrukak egingo lukeen moduan burua ezkutatzuz dute lurrazpian,

Oharra: Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino gehiago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta datu pertsonalak agertu beharko dute. Bidali gutuna **27. Posta Kutxatilara - 20590 Soraluze**. Laburtu behar izanez gero, **Pil-Pileanek** horretarako eskubidea izango du.

albiste asko ezkutatzuz, adibidez EHrekin hautsi dutela ezkutatzuz da azken ale honetan, badirudi ez dela berri garrantzitsu bat eta ez dute alean sartu. Aurreko alean herrian zegoen hutsune bat betetzera omen zetorren baina martxa honi jarraituz ez dute horrelakorik lortuko.

Gorka Salaberria Arizaga
N.A.N. 15.400.406

GARAK alkatiari aurkeztutako sinaduren gainian argitaratu zebanari buruzko oharra.

Azaruaren 18-xan GARAn artikulua bat agertu zan. Bertan, E.H.-ko zinegotzixak udal batzordetik bota ostian, erabaki hori zuzena ez zala pentsatzuz alkatiari gaixa berraztertu zeixala eskatuz, herriko talde batzuk idatzi bat sinatu zebela esaten zeban. Datu hori ez da zuzena. Idatzi hori sinatu zebenak taldietako kideak izan ziran eta sinadurak norberarenak ziran bakarrik. Hortaz infomaziñua oker azaldu zan eta hargatik argitu nahi izan dogu sinatu genduanok.

Idatziaren sinatzaillak.

AEK aurrera, euskara aurrera

Garzon epaileak azken autoan egindako salaketen inguruan, Soraluzeko AEK euskaltegiak honako hau jakinarazi nahi dio Soraluzeko herriari:

1. AEK-k ez dauka inolako loturarik ez ETArekin, ez eta euskararen irakaskuntza eta promozioarekin zerikusirik ez duten bestelako erakundeekin ere.
2. Autoan agertzen diren 19 lagunen artean, batzuk AEK-ko kideak dira, beste batzuk AEK-ko kideak izan dira eta orain ez daude, eta zenbaitek ez du inolako harremanik izan AEKrekin.
3. AEKren egiteko nagusia EUSKARA irakatsi eta gure hizkuntzaren zabalkundea sustatzea besterik ez da.

Horrez gain, bestelako egitasmoak abian jarri ditugunean, xede horiei begira edo gure ohiko jardueran aurrea egiteko baliabide ekonomikoak eskuratzearren bideratu ditugu.

4. ETA erakundearekin zerikusirik ez dugula argi dago, eta epaileak egindako bestelako salaketen gainean, honako puntuak argitu nahi ditugu:

* AEK-k ez du inolako langilerik izan, harik eta Eusko Jaurlaritzarekin AEK-ko kideen laboralizazio prozesua bideratzeko hitzarmena izenpetu zen arte.

* Langilerik egon ez bada, nekez egin dakiokoe iruzurrik Gizarte Segurantzari.

* BEZari dagokionez, nola egongo da ordaindu barik, bada, irakaskuntzan ari den erakunde batek ordaindu behar ez duen dirua?(irakaskuntzari loturik dauden jarduerak ez dute, legez, BEZik sortzen).

Hau guztia kontuan hartuta, inoiz baino ozenago aldarrikatu nahi dugu gure errugabetasuna.. Izan ere, gure delitu bakarra euskaltzale izatea baita, hori inoiz delitua izan bada.

Azkenik, zera eskatu nahi dizuegu, orain arte bezala segi dezazuen euskal kultura eta gure hizkuntzaren defentsan. Bakoitzak egin dezakeen ekarpena eginez, euskara ikasiz, euskara erabiliz, euskaraz bizi ahal izateko bideak zabalduz,...

Guk gure aldetik, ahal dugun guztia eta gehiago egingo dugu eraso politiko-judizial honetatik indartsuago ateratzeko eta gure eguneroko lanean, euskara irakatsi eta sustatzen segitzeko.

Soraluzeko AEK euskaltegia



Mendizabal
Okindegia
Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Kontulan
Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarateak
Aseguruak
Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA



Zergaittik juaten da jentia herritik kanpora?



Enca Cifuentes
37 urte
Langilia

Batez be lanagaittik izango dala uste dot. Pixuak garestixak dira eta zerbitzu aldetik be, beste herri gehixenetan gauza gehixago dago.



Juan Antonio Axpe
53 urte
Mekanikua

Lanpostuak eta etxebizitzak falta diralako. Batez be lanpostuak, ia gaztiak animatzen diran eta tailarrak egitten dittuen, iniziatiba pixkat...

Enkarna Arrizabalaga
53 urte
Etxekoandria



Nik uste dot hori lan kontua dala. Kanpora juaten diranak gehixenak lanagaittik juaten dira, lana hemen daukana, hemen geratzen da. Erosketa asko egittera kanpora juan bihar izaten gara, baina batzuk behintzat estimatzen dogu herrixa , ni ez nintzake hemendik juango.



Rosa Mari Prol
39 urte
Etxekoandria

Hemen komunikaziño gutxi dagualako izango da, transporte aldetik batez be. Zerbitzu gehixago egon ezker, hemen bizitzen jende gehixago egongo litzakiala uste dot. Gaztiak adin batetik aurrera herritik urten bihar dabe ikasteko, eta beste gauza askotarako be bai. Bestalde , Plaentxia bizitzeko oso toki lasaixa dala esango neuke.

Jose Ignazio Barrutia
39 urte
Kalitate kontrolaren arduraduna



Nere iritzixa da, lanposturik ez daguala herri hontan. Lanpostuak ekartzen dau dana, gaztiak..., herrixandako bizitasuna. Nik hemen gauza bat egingo neuke, etxe zaharrak konpontzeko arreglo batera heldu euren jabiekin, eta ezin bada konpondu, bota eta barrixak egin. Hasten zara pentsatzen eta herri honetan erosteko etxerik be ez dago, egitten dittuen barrixak segittuan betetzen dira, eta etxe asko zahartuta eta hutzik geratzen dira.

Deitu 943 75 13 04 telefonora zure kexa edo txaloa emateko

Juan Mari
Arraindegia
Eguneroko arraina
eta
konjelatuak



Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59
Partikularra 943 74 03 69

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



Sendotza, kristautasunaren onarpena egiteko prestatzen dira barikuro

Gure gizartean, gizakiok garrantzia gauza askori ematen diogu, erlijioa beti izan da familia edo lagunekin tertulian gehien agertu den gaietarikoa. Herrian aspalditik prestatzen

dira gazteak sendotza egiteko. Ostiralero biltzen dira eta gu eurengana joan gara euren iritzi eta gogoetak jasotzeko asmoarekin.

Gure aiton amonek esaten dute, maiz, gaurko gazteok baloreak galdu ditugula eta bakarrik ondo pasatzea axola zaigula, baina ostiralero gazte asko, sendotza (erderaz *confirmación*) egiteko preparamen dira abadearen etxean. Bertara jo dugu talde batekin ordu bat pasatu eta zer erakusten duten eta sendotza zergatik egin nahi duten azal diezaguten.

Barixakuan gaueko 9:30etan elkartzen dira 90 gazte inguru, sendotza hartzeko prestatzera. Prestakuntza hau hiru kurtsotan egiten da eta bakoitzak bere helburua dauka: **Lehenengoan** Kristautasunean sartzeko egiten da, **bigarrena**, Jesus pertsona moduan aztertzen da eta **azken kurtsotan** sendotzan otoitza eta elizan sakontzen da. Egia da, sendotzak garrantzi asko duela eta inportantzia hau ikasle batek holaxe azaltzen digu: *Zure gurasuak erabakitta, bataiua eta jaunartzia hartzen dozu. Orain askatasuna daukazu kristautau izateko edo ez izateko erabakitzeko.*

Aurten sendotza hartu behar duten gazteak zalantzarik ez dute Jesus bizi zela baina elizaren paperarekin ez datoz bat. *Elizak gauza txar asko egin ditu eta hori ezin da ahaztu* esaten du gazte batek, beste batek erantzuten dio: *Baina elizak barkamena eskatu dau.* Gazte hauek ez dute ulertzen zergatik dabilen eliza gizartearen atzetik. Batek diño, *gauzak gertatu eta gero,*



Ikasleak sendotzako klase batean

*elizia oso berandu konturatzten da, eta horregaittik gazte gutxi juaten dira eliziak antolatutako ekintzetara, mezetara... Beste batek erantzuten dio: *Mezak asko irauten dabe, sermoiak luziak dira eta nere ustez, meziak hogei minutu iraun biharko lituzke, horregaittik ez gara joaten gaziok.**

Hala ere, gazte hauek gusto-

ra joaten dira ostiralero abade etxean dauden lokaletara eta gustoko dute klasean daudenean eztabaida sortzea. *Kritika soziala egittia da onena* esaten du batek. Horrela ostiralero kristautasunean sakontzen dute eta sendotza eguna heltzen den bitartean erlijioa eta gizartea aztertzen dute.

Hamaika talde hauei klaseak

emateko beste horrenbeste irakasle dabilta klaseak ematen, Xuban Catalan da maixu horietako bat eta berarengana joan gara sendotzari buruzko esperientziak kota diezazkigun. Era berean Arianne Unamunorekin elkartu gara bera irakaslea izanda, gai honekiko bere inpresioak azaldu dizkigularik.



*Xuban Catalan
sendotzako monitorea*

Nere ardurapian ostiralero 10 neska-mutiko biltzen dira, hasera batian zail samarra zan euren iritzia entzuta eta asko kostatzen jatan klase bat aurrera etaratzia, nik kristautasunari buruz bakarrik berba egiten neban eta arazo hau konfidatza lortu genduanian desagertu zan eta orduandik hona ni jartzten nabe kinka larrixan euren galdera eta pentsamoldiekin batzuetan eurekin ados naguala eta beste batzutan ez. Ni ez naiz euren pentsatzeko modua aldatzen saiatzen, kristautasunaren ikuspuntua ulertu deixin nahi dot.

Laister nere taldia konfirmatu egingo da eta nere ustez nahiko prestatuta dare.



*Arianne Unamuno
Sendotzako ikaslea*

Gure ustetan, sendotzak badauka bere garrantzixa, txikittan gure baimenik bare batailatuak izan ginan eta. Orduan, ez genkan Jesusen jarraitzaile izan nahi ginuan edo ez esateko edaderik, eta gure aitak eta amak geure onerako hartu eben erabakixa onartu eta segiduko dogu. Guk pentsatzen dogu, gure heldutasuna eta sinismena Jaungoikuan aurrian aitortu eta baiezteko aukera bat dala.

Hala ta guztiz be, egixa esateko, oindiokan gure erlijinuari buruz ez dakigu guk jakin nahi dogun dana eta horregaittik, proposatu zotxeun gure irakasleri, egunen baten sendotza hartu bihar dogun danon artian galdera pila bat idatzi eta eurok eta apaizak erantzutia. Baina oindiokan ez dakigu egingo dogun ala ez. Guri oso interesgarria eta garrantzitsua pentsatzen jaku gure dudak argitzia sendotza egin baino lehen.




Herriaren erdialdera heltzeko bide berria Ezosi Bidetik Estaziora

Eraiki nahi den errepide berri honi esker herritik irtetzeko eta sartzeko aukera berri bat egin nahi da. Orain arte herriko erdigunetik Eibar aldera irtetzeko dauden bi aukereri, hau da, Gaboltzetik bata eta Baltegietatik bestea, beste berri bat gehituko zaie.


Bide honekin Sacia bota ondoren (datorren urteko maiatza aldera espero da botatze lanak hastea) eraikiko diren etxebizitzita berriei sarrera zuzena ematea lortuko da. Guztira 282.061.614 pezetako aurrekontua dute lan hauek.

2. fasea
Ezosi bideko errotondatik
Estazioko tunelerarte

1. fasea
Gaur egun tunela
hemen dago.



Errepide berriaren plano: Errepide berria Ezosi bideko parkeko errotondatik (1) hasi eta Estazio kaleraino (3) helduko da trenbideko plataforma zaharrean oinarrituko da, ia bere osotasunean



2. zatia: Ezosi bideko errotondatik hasi eta tunelaren hasieraraino heltzen den bide zatia da



1. zatia: Estazioko tunela botako da eta hobekuntza lanak burutuko dira bertan.



Errepide berria Ezosi bideko parkeko errotondatik hasi eta Estazio kaleraino helduko da, eta guztira 380 metroko luzeera izango du. Lehenengo 140 metroak errotonda eta trenbidea lotuko ditu, hau da, hoguei metro gorago dauden Gabolatz gaineko etxearaino.

Aldapa honek %11,20ko inklinazioa izango du gehienez ere. Bide berria trenbideko plataforma zaharrean oinarrituko da, ia bere osotasunean, aurretik aipatutako bide zatia kenduta. Ezozira joateko bidezidor zaharraren

zati bat desagertuko denez, oinezkoendako bidexka berri bat egitea aurrakusi da, trenbidea eta errepide berria lotuko dituen. Lan honekin batera Ezosi bideko 26. atariaren aurrean dagoen errekaxtoa bideratuko da bertan parke bat egiteko (4).

Bi norabide izango ditu eraiki nahi den errepideak, hau da, Estaziotik Ezoziko bidera eta alderantziz. Horretarako bideak sei metroko zabalera izango du eta norabide bakoitzean bi metroko zabalera espaloia. Gasarendako, telekomunikaziotarako eta argindarrerako kanalizazioak egingo dira,

eta farolez hornituko da errepidea.

Lanaren kostua eta egiteko denbora

Sei hilabetetan lanak burututa egotea espero da, eta bi zatitan egingo da:

1. zatia: Estazioko tunela botako da eta hobekuntza lanak burutuko dira bertan. Bertatik aterako diren lurrak Ezosi eta Armendia artean botako dira, parke bat egitea aurreikusia dago eta. " Construcciones Murias, S.A."k, " Altuna y Uría S.A."k eta " Construcciones Galdiano

S.A."k osatu duten aldi baterako batasunari adjudikatu zaion aurrekontua 108.268.065 pezetakoa delarik. Fase hau laister hastea espero da.

2. zatia: Ezosi bideko errotondatik hasi eta Gabolatz garaiko kalea zeharkatuz tunelaren hasieraraino heltzen den bide zatia da. Oraingoz ez zaio inongo eraikin enpresari adjudikatu eta bere aurrekontua 173.793.786 pezetakoa da.

Aitor Madrid



ZER
BERRI

Laburrean

Udalean euskararen aldeko hainbat ekimen jarri dira martxan

Abizenak legez euskaratzeko kanpaina

Udaleko euskara batzordeak, abizenak euskaratzeko kanpaina jarri du martxan. Kanpaina honek herritarrei euren abizenak euskaraz jartzeko aukera eskeinitu die. Interesatuak dauden guztiek, azaroaren 27tik abenduaren 15era bitartean Udalean dagoen Bake Epaitegira joan beharko dute (11:00-13:00 / 18:00-20:00 martitzen eta eguenetan) euren datuak emanda, abizena legez euskaratu dakion.

"Plazentzian be euskeraz" kartela herri sarreran

"Gure herrira datorrenari, gure herrixan euskeraz, egitten dala eta euskeraz, egin nahi dala gogorarazteko" herri sarreran **"Plazentzian be euskeraz"** dioen kartel bat jartzea erabaki du euskara batzordeak. Erabakia hartuta egon arren, oraindik kartelaren diseinua egin eta jartzeko tokia bilatu behar denez, jarri arte hilabete batzuk pasatuko dira.

"Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko Udal Ordenantza" onartu du Udalak

Udalak, hil honetan bertan onartu du **"Euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko Udal Ordenantza"**. Ordenantzak dioenez, "euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta gaztelania bezala ofiziala izateaz gain, Euskal Herriaren ondare da." Hau horrela izanda, "euskara Soralarako Udalean eta udalerrian normaltasunez erabiliko den egiazko komunikabide izan dadin nahi du Udalak, eta horretarako behar diren neurriak hartuko ditu". Horrela ba, azken batean "Udalaren barne-funtzionamenduan nahiz Udalaren eta herritarren arteko harremanetan, hala nola udalerriko bizitza sozialean euskararen erabilpena normalizatzeko udal burutuko duen jardunerako arau-esparrua definitzen da Ordenantza honen eskutik".

ETAk egindako atentatuen aurkako konzentrazioa Plazan



Azaroaren 9an eta 22an, arratsaldeko 20:00etan, **"Gesto por la Paz"** bakearen aldeko koordinakundeak, kontzentrazioan parte hartzeko deia egin zuen Plaza Barrixan, Madrilen eta Bartzelonan izandako atentatuak gaitzes-teko. Herritar asko bildu zen.

Txortari omenaldia egin eta Casaresi monolitoa jarri diote



Joan zen Sapatuan, azaroak 18, Txorta hil zela sei urte bete ziren, eta goizeko 10:30etan mendi martxa egin zen bere omenez. Aurreko egunean ere kontzentrazio bat egin zuten asmo berarekin. Mendi martxan, Casaresen oroigarri gisa orain dela gutxi jarritako monolitoa ikusteko aukera ere izan zen.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki Menestra,
Gixauak...
**Asteburuan plater
konbinatuak**
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Iribe baserria bota dute



Irure auzoko Iraola-Etxebarri baserria bota egingo dute Eibar-Gasteiz autopista oso gertutik igarotzen delako eta arazoa nolabait konpontzeko, Iribe baserria bota dute. Bertan, Iraola-Etxebarri baserrikoei beste baserri bat egingo diete.

Iribe izenak, etimologikoki, "hiri behea" esan nahi du eta Ezozti auzoko beheko partean zegoen. XVIII. mendean, Iribe baserrian, Pedro de Anabarrieta bizi izan zelako idatziak daude eta hurrengo mendean Francisco de Ariznabarreta. Ba-

dirudi, XVIII. mendearen erdialdeko eskuiskribu batzuek diotenez garai honetan baserria, Anako Agustina mojen Komunitatearen esku zegoela.

Euren etxea lagata Iribe berrian biziko direnei, zortetik hobereena opa diegu.

Osasungintzan euskaraz egitearen aldeko kontzentrazioa



Azaroko azken barixakuan, 24an hain zuzen ere, Soraluzeko EHEK kontzentrazio deialdia egin zuen Plaza Barrixan, osasungintzan euskararen presentzia eskatzeko. Plazan, taldekideak ezezik beste jende askok parte hartu zuen.



Laburrean

Txokolatada Zaharren Egoitzan

Azaroaren 14an, asteartea, txokolatada izan zen herriko Zaharren Egoitzan. Ehun pertsona inguru bildu ziren, kaletik 50 eta bertatik beste hainbeste. Hurbildu ziren guztiek txokolatea, "croissant"-a eta pastel zatia jaso zuten.

José Alberto Oregik 1000 aldiz igo du Karakate bizikletan 5 urtetan

Hilaren 25ean, goizeko 11:30ak aldera, José Alberto Oregi Larrañagak 1000. aldiz igo zuen Karakate bere bizikletaren gainean. Duela 5 urte, bere igoaldiak kontatzea erabaki zuen eta gaur arte 1000 aldiz igo da. Zenbatzen hasi eta lehenengo aldian egin zuen moduan, azken honetan ere, bere iloba Jon Oregi txirrindulariarekin batera igo da mendi puntaraino. Aipatu beharra dago, lehenagotik ere 400 edo 500 bat aldiz igoa zela eta horregatik erabaki zuela hutsetik hasi eta mila aldiz gutxienez karakate mendi mendi puntaraino igotzen jarraitzea. Zorionak!

(Hurrengo alean datu eta zehaztasun gehiago agertuko dira.)

Athletic zaleen bazkaria

Azaroaren 18an, Soraluzeko Athletic zale guztiek bazkaria izan zuten Txurruka jatetxean. Bertan, talde bilbotarraren 35 jarraitzaile batu ziren, eta joandako guztiek oparia jaso zuten.

Istripua poligonoan

Pasa den hilaren 27an, kotxe istripu bat egon zen poligonoan. Gazte batzuek industri gunearen amaieran dagoen pareta jo zuten kotxeaz. Hala ere istripua ez zen larria izan eta gazte guztiak onik irten ziren. Pozten gara !

SAN ANDRES

Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak

Sukaldeak eta bainuak



Erreal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

ETXEBARRI®

Barra kargadore automatikoak
Tuerka roskatzaileak
Ranuratzaleak
Makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62
Telefona(943) 75 18 91
Faxa 75 18 91

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Gipuzkoa)



Diputazioaren txostenaren arabera, Deba Ibaia Gipuzkoako kutsatuena da

Foru aldundiak 1999an egindako Gipuzkoako ibaien ur kalitatearen ikerketatik ondorioztatu da, Deba ibaia oso kutsatua dagoela. Ibaiaren sorburua Leintz-Gatzaga inguruan dago eta bertan urak oso kalitate ona duen arren, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko isurketak direla eta, inguru horretako uraren kalitatea nabarmenki txartzen da. Eremu hori Gipuzkoako kalte-tuenetakoa da, urak kalitaterik txarrena baitauka bertan.

Ibaiaren bideari jarraituz, Oñatiko ibai-adarraren kutsadurak uraren kalitatea are eta okerrago bihurtzen du, baina hala ere, Bergarara iristean zertxobait hobetzen da. Ikerketan antzemandako Ber-



Deba ibaiak aspalditik erakusten du egoera tamalgarria. Soraluzetarrok badakigu hori.


garako isurketa toxikoen eta Maltzaga ingururainoko bestelako kutsatzaileen erabilpenaren ondorioz, urak guztiz kutsatua jarraitzen du. Elgoibarko arazkailuak (urari kutsatzaile batzuk kentzen

dizkionak) hobekuntzaren bat eragiten duen arren, ibai Deban itsasoratzen denean, ura erabat kutsatua iristen da.

Txostenak dioenez, Deba ibaiaren uraren kalitatea

hobetzeko aukerak arazketa-proiektuaren menpe daude. Hala ere, ibaira kutsatzailerik ez isurtzea izango litzateke egokiena.

Gabolatzeko "artelana"



Gabolatz kaleak aldaketa bat izan du azkenaldi honetan. Bertako zubiaren parean dagoen horman, orainarte ahate batzuen marrazkia zegoen horretan, Soraluzeko herriaren marrazki bat egin dute.

Margo hau **Arruabarrenatarrek** margotu dute eta gure herria joan zen mendean zelakoa zen erakusten du. Ikusgarrixa!

ARANE
Kiroldegia



Tel: 943752466


Gosariak eta pintxoak !!

TABERNA
GILYA

Errabal kalea, 15
Tfnoa 943 75 18 34

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik!!

Perixa flasha Gaztaiñerre egunian



Itsasoiko eta Guenetxetxoko neskatilak, ekarrittako produktu edarrak saltzeko gertu



Pil Pileanek eruandako tarta danak saldu zittuan, negozio biribila. Egunkari bat etaratzeko asmua daukagu. Eskerrikasko erosleoi.



Pedro eta Juliri zorionak eta jarraitu orainarte bezain jator eta langile. Ondo merezittako omenaldixa jaso dozue.



Nahikua lan izan zeban Etxebarrik bazkalostian, dinosaurixuen onduan. Infernua ei zan infernua. Gixajua !




Mutikuak adi adi jarraitu zeben sestugilian lana. Sestugiliana edo argazkilarixana.



Jende asko urreratu zan aurtengo berrikuntza nagusixa izan dan herra mintta zaharren erakusketara

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze



ELKOARTI
VIDEOCLUB
SORALUZE



Videomatic
Gabolatz, 3-behea
Telefona: 943 75 24 87



Gobernu bartzordeak

Urriaren 30ean egindako ohiko saioan:

Estazio kalean baranda jartzeko "Otaduy" ren aurrekontua onartzea, 1.317.120 pezetako zenbatekoz, gehi BEZ.

Euskera Batzorde Informatzailearen proposamenez onartu da "Plaentxi Herri ikastetxea"ri 185.000 ordaintzea Euskal kirola Euskalduntzeko lan-

mahiaren finantziatorako.

Hezkuntza Batzorde informatzailearen proposamenez:

1. "Atxolin Guraso Elkarte"ri 100.000 pezeta ordaintzea, urtean zehar aurrera eramaten dituen ekintzarako.

2. "Soraluze B.I" ri 175.000 pezeta ordaintzea, ikastetxeko Hizkuntza

Normalkuntza proiektua finantzatzen laguntzeko.

Azaroaren 6an egindako ez ohiko saioan

Kultura eta Gazteria Batzorde informatzailearen proposamenez:

1. 873.480 pezeta ordaintzea "Esquema S.L."ri udal aldizkaria argitaratzeko.

2. 300.000 pezetako aurrekontua onartzea, azaroaren 12an egindako Perretxiko Lehiaketarako.

219.000 pezeta ordaintzea **Pil pilean Kultur Elkarte**ari, bertso afaria eta bertsopaper lehiaketako gastuengatik

Santiago Gonzalez jaunari 40.000 pezeta ordaintzea **Ikasi-Makusi kultur egitasmo**aren baitan eskaintako hitzaldiarengatik

DBHko ikastetxeko frontoi zaharra

estaltzeko proiektua idatz dezala eskatzea arkitecto bati.

Irantzu Benito Arluziaga And. Gizarte Laguntzaile lanetarako kontratatzea, sei hilabeteko epez eta egun erdiko lanaldiaz.

Azaroaren 6an egindako ohiko saioan

Euskera Batzordearen proposamenez, Udal Batzarrak gehiengoz erabakitzen du, EAJ-PNV(lau boto),

EH (hiru boto) eta EA(bat) aldeko botoz eta PSE-EE (bat) eta PP(bat) Batzarkideei dagozkion bi abstentzioz,

Euskeraren erabilera sustatu eta Normalitzeko Udal ordenantza onartzea.

Azaroaren 20an egindako ohiko saioan

Kultura eta Gazteria Batzorde informatzailearen proposamenez 2000 urtean eman eta oraindik kobratu gabe duten dirulaguntzaren %40 ordaintzea hurrengo elkartei:

1. 280.000 pezeta **Beti-Presti**
2. 90.000 pezeta **Kontrargiri**
3. 44.000 pezeta **"Urrats Dantza taldea"**ri

Gabolatz eta Ezoziko Ama Hiribidean aparlekuak markatzeko, "**Norte Industrial**"en aurrekontua onartzea 321.697 pezetako zenbatekoz, BEZ barne.

Gortinak josi eta "**Soraluze BHI**" ikastetxean jartzeko, "**Cortinas y Persianas Eibar**"aurrekontua onartzea, 110.650 pezetako zenbatekoz, gehi BEZ

Zaharren Egoitza inguruko esku baranda konpondu eta margotzeko "**Carlos Astigarraga S.L**"ren aurrekontua onartzea, 212.524 pezetako zenbatekoz, BEZ barne.

Eduardo Pombar



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortaberria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

FER. S.A.

Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfnoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



Gaztainerre ferixa txikixa institutuan

Berriz ere hemen gaituzue eskolako berriak kontatzeko asmoz:

Azaroak 10ean urtero antolatzen denez, ikasle guztiek "Gaztainerre Azoka" prestatu zuten. Bertan 6.mailakuok herriko produktuak saltzen eta erakusketa zaintzen egon ginen.

Hurrengo astelehenean eta ohiturari jarraituz, bertsoak abesten eta gaztainak jaten igaro genuen arratsaldea.

Azaroak 14 eta 15ean aldiz, 5. eta 6. mailakuok "Bide-Hezkuntza"-ri buruz teoria eta praktika ikasi genuen, azken hau moto elektrikoekin goiko jolastokian landu genuelarik.

6. maila A-ko ikasleak



"Gaztainerre Azoka" txukuna prestatu zuten 6. mailakuak

Plazentziako berbak


Aurreko alean aipatzen genizuen moduan, hona hemen gure herriko berbak lantzeko aukera.

PLAENTXIAKO ERAN

§ <i>Demandan egin</i>	§ Gogor eztabaidatu
§ <i>Arrapataka ibili</i>	§ Prisarekin ibili
§ <i>Kabidu ezinik ibili</i>	§ Oso harrotuta ibili

ESANAHIA

Javier Alonso Celaya
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA

Futbola

Herriko taldeak:

Joko ona eta emaitza ezin hobeak

Errejonak emaitza onak lortu ditu azken hilabete hontan nahiz eta azken 12 puntuetatik 5 puntu lortu dituen. Honelako datuekin erraza izango litzateke taldea kritikatzeko baina kontuan izanda zeintzuk izan diren aurkariak (Kili, Iiintxa, Orioko eta Elgoibar) emaitza onak izan direla esan dezakegu. Bi berdinketa eta garaipen bat lortu dituzte eta lortutako puntuekin sailkapenaren toki lasaietan aurkitzen dira aurreko postuetatik gertu eta ilusioz beteta.

Kadete eta jubenilei dagokienez euren jokoak ez du behera egin eta sailkapenaren lehen postuan jarraitzen dute biak. Par-



Soraren kadete taldea. Tira denetik dago hemen ere, baina oraingoz primeran bete dute euren lana.

**Kadeteak
eta jubenilak**

**sailkapenaren
lehen postuan
aurkitzen dira**

tiduak aurrera joan ahala ikusten da taldeak momentu oso onean aurkitzen direla eta oso zaila dela beraiei irabaztea, batez ere Ezoziko *inpernuan*. Horrela jarraitu ezker, biek igoera faserako sailkatzea lortuko dute.

Errejonala

SORALUZE 2 - Kili 2
Iiintxa 4 - SORALUZE 1
Orioko 1 - SORALUZE 1
SORALUZE 2 - Kili 1

Elkarrizketa

Aitor Prieto "jokatzetik", entrenatzera


Aitor Prieto jubenilen entrenatzailea dugu eta bere emaitza onak direla eta beregana jo dugu.

Zeintzuk dira denboraldirako helburuak?

Ahal diren partidu gehienak irabaztea, sailkapeneko lehen postuetatik gertu geratzea edo lehenengo mailara igoetzea oso polita izango zelarik.

Hau lortzeko nolako taldea daukazu?

Bere mailan inguruan dagoen onenetakoa da nahiz eta batzutan disgusto batzuk eman.



*Aitor Prieto jubenilen entrenatzailea
Nola portatzen dira mutilak talde moduan?*

Ondo konpontzen dira, ez daukagu

arazorik ez zelaian ez aldagelan.

Nola ikusten duzu zure burua entrenatzaile moduan?

Aldaketa handia dago eta oraindik esperientzia falta nabari dut. Partiduetan oso nerbiooso jartzen naiz eta zelaira sartzeko gogoia ematen dit. Falta zaidan esperientzia partiduetan lortuko dut. (Bere lehenengo erantzuna, " Pakete hutsa naiz" izan zen)

Hitz batzuk **Pil-Pileanentzat**. Ez kontau gezurrik, eta segi egindako lan onarekin.

*Xuban Katalan
eta Gorka Salaberria*



Hnos. BENITO ANAITIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Lonbide taberna

*Pintxo ezberdinak
Ardoak, kafeak eta likoreak*

Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



XIX. Jesus Atxa Memoriala


Abenduaren 10ean

Aurten ere badator herriko korrikalarien proba maitatua, Jesus Atxa memoriala hain zuzen.

Abenduaren 10-ean izango da eta korrikalari eta ikusleendako oso egun alaia. Urtero moduan proba 5 mailatan bananduta egongo da eta ondorengo hauek dira:



Jesus Atxa korrikalari plaentziarra



Kirola euskaraz - futbola -

Neska mutikoak ilusio haundiz eta euskaraz kirolean



Xuban Catalanek entrenatzen duen futbol taldea.



Ale honetan futbolari buruz berba egingo dugu eta hurrengo aleetan eskubaloia eta saskibaloia buruz. Futbolearen emaitza ezin obeak lortu dituzte

partidu guztiak irabazita:

Lehenengo bi partiduetan 4 eta 0eko markagailuarekin eta azkena 13 eta 2koarekin, honela sailkapenaren lehen postuan aurkitzen

direlarik eta gainera oso pozgarria da denondako gaztetxoak euskaraz jokatzen ikustea.

Animo eta jarraitu horrela!!!



TXURRUKA
JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



Lakuesta

Optika



Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkaiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
 20590 Soraluze
 Tfnoa 943 75 30 59

Hilabete oparoa

Soraluzeko pilota taldearendako

I ragan den hilabetea oparoa izan da oso Soraluzeko pilota taldearendako. Izan ere azaroa inguruan herriko pilotariek **hiru txapel etxeratu dituzte eta.**

Lehenengoa Aritz Laskurainek lortu zuen urriaren 27an, Esnal hernaniarrarekin batera, Ansotegi eta Erraztiri gipuzkoako bigarren txapelketako finala 22 eta 18ko emaitzaz irabazi zuela.rik.

Beste bi txapelak Erlai Txurruka eta Iñaki Jauregik eskuratu zituzten Deba arroko **Café Baque txapelketan** kadete eta jubenil mailako txapelak eskuratuz, iaz lortutako tituluak berrituz.

Erleik 22 eta 7ko emaitzaz Errarte Eskoriatzarra mendean hartuta kadete mailako txapel-dun bihurtu zen azaroaren 14an Bergarako udal pilotalekuan. Iñakik ere erraz lortu zuen jubenil mailako txapela, antzuolatar Agirre 22 eta 8 ko emaitzaz garaituz.

Orain biak gipuzkoa osoko txapelaren bila dihardute, Erleik iadanik lehen urratsa emana duelarik final laurdenetan Bellosori 22 eta 11 irabaziz, finalerdietan Etxebeste izango duelarik aurkari.

ETB-DV txapelketatik ere badatorkigu bai berri onik ere,



Fin fin dabilza herriko pilotariak azken aldian

denak onak ez diren arren, izan ere, herriko bi pilotariek emaitza ezberdinak lortu zituzten eta.

Iñaki Jauregi, partidu gogor batetan, Etxeberria eta Erenu bikoteari 22 eta 13ko emaitzaz gaiendu zitzaizen Zabala aurrelariarekin ba-

tera. **Aritz Laskurainek ordea ezin izan zuen partidua aurrera atera,** Jabier Matute aurrelari biziarekin batera, Amarika eta Urberuagaren aurka 22 eta 14 emaitzaz galdu zuelarik.


Jauregik final laurdentako partidua azaroaren 26an jokatu du Elizondo herri baztandarrean Baleztena eta Huarteren aurka.

Gipuzkoako klubun arteko txapelketak ere aurrera jarraitzen du. Lehen

Jauregik final laurdenetako partidua azaroaren 26 an, Elizondo herrian, Baleztena eta Huarteren aurka

kanporaketako ligaxkan emaitz honen bitartez aurrera egin bazuten, bigarren kanporaketako ligaxkan ere emaitzak pozgarriak izan dira, izan ere bi partidutatik garaipen eta porrot bana lortu dira eta, bi bikote indartsuren aurka.


Erlei kadete mailako txapel-duna Bergarako udal pilotalekuan 22 eta 7 irabazita



ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa Berogailuak Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 639 17 96 96
Sakeleko tlfonoa: 656 30 85 24





Elena Garcia:

*"Plazentzia ...**guk egiten dugu berezi eta eder ..."*

Abenduaren atarian gauden honetan, lanetik bueltan dato-
rra egin dugu topo 29 urteko plazentziar honekin. Ez da erre-
za izan elkarrizketa hau lortzea, behin eta berriro errepikatu

du eta, berak dioenak ez duela inongo interesik eta ea zer egin
duen aldizkarian azaltzeko. Azkenean irrifartsu ekin dio el-
karrizketari eta hona hemen emandako zenbait erantzun.

Egingo diguzu zure erretratu txiki
bat.

Erretratua egin didazu zuk, beste bat
nahi duzu?

-Aaaiii!! banintz ala...aaiii!!banu?

Ez banintz eta ez banu...naizena naiz
eta daukadana daukat eta nagoen
moduan gustura nago.

-Zerk galerazten dizu loa?

Galderen arabera elkarrizketa honek

*-Aukera ezazu eguneko momenturik
onena*

Afalostean ohera joateko ordua

-Zer uruditzen zaizu prentsa arrosa?

Jendea errespetuz tratatzen badute
onargarria,baina gehiegikeria asko
egiten direla iruditzen zait.

-Euria...

Hezetasuna ez zait gehiegi gustatzen ,
baina udako ekaitzak atsegin ditut

-Sukaldean duzun berezitasun bat

Marisko paella

*-Buelta asko ematen al dizkiozu
buruari?*

Nahi baino gehiago

-Txikitako oroitzapen bat.

Ez dakit, bat aukeratzearren...
eskolara joan nintzen lehenengo eguna
ondo gogoratzen dut.

-Ezin duzu jasan

Ezin ditut jasan handikiak, besteak
baino gehiago direla pentsatu eta
adierazten dutenak.

-Zoriontsu izateko...

Eguneroko gauzakin gozatzen ikasi
behar da. Daukagunarekin gustura
bizitzea da gakoa.



-Abenduak zer ekartzen dizu burura

Urteari agur esateko ordua, pasatuta-
koaren balantzetxo bat egin eta berriari
gogoz heltzekoa

-Atsegin duzu...

Hondartzan oinutsik paseatzea.

-Miresten duzu...

Miresten dut saiatur edozer gauza
lortzeko gai den edonor.

-Gabonak ...

Alaitasun eta goibeltasun punttua dute
era berean, alde batetik jai giroan

murgilduta egoten gara denok, baina
bestetik egoera gogorak ere ematen
dira.Batzuk ez daukate norekin igaro
gabonak eta egun bereziak direnez, pena
ematen du.

-Balio handiko oparia ala sorpresa?

Biak eska daitezke?

-Plazentzia...

Nahiz eta mila aldiz oso itsusia dela
entzun, guk egiten dugu berezi eta
eder.

Gururu

Arandela pulituen fabrika
Standart Tipoa, Din eta Zeta
Araukak, eredu edo planoen
araberako Estanpazio lanak.



Estanpaciones **LAGA s.a.**

Industroalde
telf: 943752350/1985
telefax: 943751702

42 postakutxa
20590 Soraluze



Eginberri
Okindegia

SANTA ANA, 4

Telefona: 943 75 25 43

Soraluze



Bertso Afarixa eta bertso paper lehiaketako sarituak

60 Pertsona baino gehiago izan ziran Urriaren 27 xan Ezozti jate-txian egin zan bertso afarixan. Igor Elortzaren partez Amets Arzalluz bertsolari gaztia etorri zan eta Jon Maiaekin batera izugarrizko saiua egin zeban bildu ziranen pozera-ko. Bertsuez gain txistia-kiak be izan ziran, Inaxio Elortza **"Per-nando"**k kontautu. Aurtengo bertso-paper lehiaketako sarixak be bertan emon ziran eta Beasaingo Ekaitz Goikoetxea izan zan txapeldun, bigarren Ainhoa Agirreazaldegi Bergararra eta herri mailako lehenengo Egoitz Unamuno. 16




Amodioaren ilunbeetan

Ilargiaren azken ditzira egun berri bat pitzen ari da izadiaren zorion puskak ezin ditzaket deskriba deioa ta desira elkarri musuka dira egun sentiko argira begiak urrun luzatu ditut ortzi mugaz haraindira inoiz nirea izan nahi luken begiradari begira.

Ekaitz Goikoetxea

Urtetik beherakuen sateko Jokin Labai-mailan Iban Urdan-garin Beasaindarrak eruan zeban lehenengo sarixa, bigarrena Arra-

Javier Elorza plaentxiar historialariak Eibarko historiaren gaineko liburua argitaratu du



Javier Elorza historialari plaentxiarrak, orainarte aztertu gabeko erdiaro garaiko Eibarren historia biltzen duen "Eibar, orígenes y evolución, siglos XIV al XVI" liburua argitaratu berri du azaroaren 23 an, Eibarko Udaleko Ego Ibarra elkargunearen bitartez. Orain 20 bat urte hasi zen Elorza Deba Barrenako udalerrietako, batez ere Soraluze, Eibar eta Elgoibarri buruzko gai historikoak aztertzen. 1.000 Orri inguru dituen liburu berri hau egiteko, Estatuaren Artxibo Orokorretan (Simancas, Histórico Nacional eta Chanchillerias), Granadan eta Valladoliden zegoen dokumentazioa jaso behar izan du. Bere esanetan liburu honen helburua, Eibarren herri izendapenaren aurretiko erreferentziak batzuk ere jasotzen dituen eibarko historiaren garai garrantzitsuenaz ezagutzera ematea da. Eskerrikasko Javier eta zorionak !

"Gau Sentipenak" poesia emanaldia egin zen Gaztelupean



Azaroaren 2 an eskeini zuen Gaua taldeak **"Gau sentipenak"** poesia musikatuzko saioa. Elgoibarko talde honen poesia, poesia errealistatza jo daiteke eta nahiko ulergarria da. Jon Eugi da poemagilea eta pianoz lagunduta saio gozagarriak osatzen dituzte han eta hemen.

"Munduari bira belauntzian" hitzaldia institutuan

Joan zen azaroaren 3 an eskeini zen Institutuan 10 urte baino gehiago itsasoan belauntzi batetan bizi izaten pasa dituen familia euskaldun batek egindako erreportaia. **"Munduari bira belauntzian"** dauka izena emanaldiak eta bertan pasatu diren tokietako berri eta pasatu behar izan dituzten egoeren berri eman zuten.

Luis Elberdinen "Seksu kontuak" hitzaldi beroa



25 Enbat lagun bildu ziren Luis Elberdinek urriaren 26an Gela Urdinean eskeini zuen seksu kontuei buruzko "hitzaldi" berora. Elberdinek bere liburu berriko kontuetan oinarrituta, gizon eta emakumezkoen arteko harreman seksualetan ohizkoenak diren arazoek argi egin zien. Horretarako, ikusle moduan joandako plaentxiar batekin egindako antzerki gisako baten bitartez ahalegindu zen ahalik eta egoerarik errealean sortzen. Lortu zuen bai!

"Petrikiloak" taldeak gozatu zituen umeak

Azaroaren 9 an "Petrikiloak" kale antzerki taldeak, gozatu zituen ondo Plaza Zaharrera urreratu ziren umeak. Zanko eta goma espuma deritzon jantziekin moztortuta nahikoa aldrebeskeri egin zuten.

"Lana bilatzeko teknikak" atzeratu egin behar izan da

Azaroaren 11 eta 18 an egitekoa zen "Lana bilatzeko teknikak" ikastaroa atzeratu egin behar izan da, izena oso jende gutxik eman duelako. Oraindik ez da data berririk jarri.



Deba ibarreko euskalzale eta euskalariak "Badihardugu" elkarteak sortu dute

Eibar, Deba, Mutriku, Soraluze, Aretxabaleta, Oñati, Bergara, Antzuola, Elgoibar, Bergara, Eskoriatza, Arrasate, Elgeta, Gatzaga, Mallabia eta Ermutik etorritako euskalari eta euskalzaleek jo zuten sortutzat

Badihardugu elkarteak sortzeko asmoa, uda aurretik Deba bailara guztiko 40 bat euskalzalek egiten hasitako bileretan sortu zen. Bertan, orokorrean euskararen egoera eta batez ere kalitate eta erabilerarekin kezkatuta, euskalkiaren erabilera indartuta arazoa konpontze bidean jartzeko era bat ikusi zuten bildutakoak. Udatik hona egin diren bileretan, pixkanaka pixkanaka elkarteari izaera bat eman eta ezagutarazteko asmoa hezur mamitzen joan da eta asmo horren fruitu da **Badihardugu**.

Elkartearen helburuak

Elkartearen helburu nagusiak honako hauek dira; Deba Ibarreko euskalarixak batuko dituan gunia osatzia, bailarako berbetia prestijiatu eta konplejuak baztartzia, hizkuntza Corpusa batzia, euskaria bera sendotu eta aberastia, transmisio naturala eta kulturala bultzatzea, eta kezka berdinak dituzten elkarte eta erakundiekin alarkalana bideratzia. Honekin batera garbi laga nahi izan dute, hau ez dala Euskara Batuaren aurka edo bera baztertze inongo ahalegi-

na eta egingo den lana ezer baino lehenago euskaldunak eta ondoren euskalkidunak garelako kontuan hartuta egingo dela azaldu dute. Bestalde, edozein izan daitekeela alkarte honetako kide eta ez dela Eibarrera mugatuko den gogoeta gunia izango ere azpimarratu zuten.

Koldo Zuazoren "Euskararen Sendabelarrak" oinarri teorikua

Koldo Zuazok euskalkien gaiaren inguruan argitaratu berri daben *"Euskararen Sendabelarrak"* liburua da, dudarik barik, euskalkien gaineko kezka eta asmo guzti hauek, azaldu eta ikuspuntu zabalago bat hartuta teorizazio mailan islatu dituen. Zuazo bera izanda, eztabaida hau kaleratu eta hedatu zuena, ardura eta harretia haundiz biltzen ditu liburua, aurrera begira egin beharreko bidean kontuan hartu beharrekoak diren zenbait kontzeptu giltzari.

Pausuak ziurtasunez
eta mantxo baina
etenik barik emon
biharko dira

joan zen sapatuan, Eibarko jardunaldietan "Badihardugu" elkarteak. Elkarteak, euskalkiaren erabilera indartu eta zehazteko helburuarekin sortu da. Aurtengo Durangoko Azokan ere izango da ikusgai.



Badihardugu elkarteak zuzendaritza batzordea

Kontzeptu giltzari horietako bat da seguraski, "hizkuntza sena", Zuazoren ustetan azken aldian goitik behera datorrena.

Jardunaldiak Eibarren

Joan zen sapatuan egin ziren Eibarko Portalean, bailarako euskalzaleei elkarteak ezagutarazi eta dituen asmoen berri emateko lehen Jardunaldiak. 400 Euskalzale zeuden gonbidatuta eta horietatik 70 bat elkartu ziren Eibarren. Goizeko 9:45 ean eman zitzaizkien hasiera jardunaldiei. Lehenik eta behin, bildutakoek ongi etorria egin zitzaizkien, ondoren Koldo Zuazok hitzalditxo bat eman zuen bere liburu berriaren oinarrituta. Honen ostean, elkartearen nondik norakoak azaldu eta bildutakoak bileretan banatu ziren, Corpusaren eta Estatusaren

lan taldeetan. Azkenik, talde bakoitzak eztabaidatutakoak azaldu eta elkartearen estatutu eta karguak onartu zituzten aho batez. Zuzendaritza batzordea honela gelditu zen osatuta; Serafin Basauri euskalari "beterano" eibartarra aukeratu zen lehendakari kargurako, Juan Martin Elexpuru idazle begararra berriz lehendakariorde kargurako, hortaz gainera Zuzendaritza Batzordean izango dira, Koldo Zuazo soziolinguista eibartarra, Jesus Mari Makazaga filologo elgoibartarra, Mirian Txintxurreta arrasatearra, Jaione Isazelaia irakasle begararra eta Gurutze Ariznabarreta plaentxiarra ere bai. Hortaz, joan zen sapatutik **Badiarduguk** badihardu lanean.

Pausuak mantxo eta ziurtasunez, baina etenik barik emon bihar dira.

Egoitz Unamuno



Ventanas Olarri

- * Aroztegia, PVCa, Aluminioa
- * Terraza estaldurak, Balkoiak
- * Leihoak, manparak

Mendiola Poligonoa 10
20590 Soraluze 73 Posta Kutxatila



Adi!!

Pil-Pilean 1.800 aleko tirada

Iragarkia ipintzea nahi?

Deitu 943 75 13 04ra



Intxaur saltsia



Kontxi Elkoro

Oraingo honetan danondako ezaguna dan Lonbide tabernara jua gara. Ekainian Itziar Argaratek berriro zabaldu eta han aurki geinkez pintxo eta bokadilo goxo goxuak. Bertako sukaldian Kontxi Elkoro topatu dogu, bere bizitzako parte haundi baten sukalde eta lapiko artian bizi izan dana, eta nahiz eta bere gailera goxuen errezetia eskatu, berak sekretua dala esan eta bere intxaursaltsa goxuaren arrezetia emotia nahixago izan dau.

Osagaixak:

700 gr. Intxaur (azalgabe)
400 gr. Azukarra
Kanela ale bat
4 litro esne
Baserrikoogixaren mamiña



Zela egin:

Lehenik eta behin, intxaurrek txikitu ahalik eta txikixen, honen ostian azukarra eta kaneliarekin nahastau eta litro eta erdi uretan egosten ipini. Nahasketa hau ordu ta erdiz egongo da egosten su motelien eta sikatu ezkeru ur gehiago bota.

Esnia berotzen jarriko da gero eta berotzen doian ehinian lengo nahastia gehittuko jako poliki poliki esnia galdu ez dein. Bukatzeko ondo desegindutako mamiña botako jako danari, bakoitzak nahi daben lodiera lortu arte.

On egin lagunak!!

Izaskun Gartzia



Jose Perez
Pinturak

Pinturak eta alfonbrak salgai

Santa Ana 21 - behea eta 21 - 2 ezkerre Tfnoa: 943 75 10
Soraluze

Oharra

Kanpuan bizi bazara edo kanpuan bizi dan norbaitti, hileru aldizkarixa bidali nahi badotsazu, deituiguzu eta emon zure/bere izen abizen eta helbidia.

*1.000 pezeta sartu Pil Pileanen kontu korrontian:
Euskadiko kutxa 3035 0004 9 0 0040015550*

Bere izena adierazi eta hileru aldizkarixa bidaliko dotsugu edo dotsagu etxera.



Laburrean

"Entzun kaliak entzun musikaren hotsa" izan zen Santa Zeziliaren omenezko kalejiraren goiburua



Urtero moduan aurten ere Santa Zezilia eguna ospatzera atera ziren kalera Soralezuko Musika Eskolako ikasle eta irakasleak. Azaroaren 24 an atera ziren kalez kale musikaren zaindarien santua omendu eta bide batez herriari alaitasun pixkat emanaz. Oroitzapen on asko izango ditu batek baino gehiagok. Egun berezia izaten da ikasleendako eta beste askorendako ere bai. Segi dezala aurrerantzean ere orainarte bezain osasuntsu. Hona kalejiran kantatu zen bertsoetako bat:

*Entzun kaliak entzun
Musikaren hotsa
haize epelez mintzo
dan gure ahotsa
Santa Zeziliaren
egunaren poza
Musikaz mozkortuta
danok daigun goza.*

Txokuan kontzertua




Joan zen hilaren 17 an, Antigua Blue taldearen kontzertua eskeini zen Txoko taberna. Baterixa, gitarra, saxo eta bajoak lagunduta bertaratu zirenen belarriak gozatu zituen talde gazteiztarrak. Txokokoek esan digutenez, musika ekitaldi gehiago antolatzeke asmoa daukate, karaoke bat urtea amaitu aurretik.

Egoitz Unamuno

Mikel Urdangarinen disko berria kaleratu du Gaztelupek

Espilue



Mikel Urdangarin

Barren barrenetik, bihotzez eta zentzunez" egindako diskoa omen da "*Espilue*". Dagoeneko *Gaztelupe* tabernan daukagu eskura bizkaitar abeslariaren azken diskoa.

Hil honetan bertan kaleratu du Mikel Urdangarinek bere hirugarren diskoa. Oraingon ere *Gaztelupeko Hotsak* diska etxe soralezutarra aukeratu du Zornotzarrak bere lana argitaratzeko. Ukitu estilistiko kontenporaneoak, folk anglozeltak, country amerikarraren usaina, harizko instrumentuek ematen dioten klasikotasuna, akordeoiaren oihartzuna edo rock inguruko baladek egiten dute lan borobil "*Espilue*".

Hamalau kantu dakarkizkigu Urdangarinek: gehienak, goitik behera berak konposatuak; gairontzeakoak Unai Iturriaga, Igor Elortza, Iñaki Aurrekoetxea eta Gerardo Markuleta lagu-

nek idatzitako testoa kideratu dituzte.

"Zatozte" eta "*Lau koplatxo*" kantuek Edinburgoko estudio batean grabatu ziren. Erritmo zeltetan islatuz, lotura berezia lortu du Mikelek mundu anglozelta horrekin. "Non geratzen den denbora" singlean biolina gitarra eta cello konponketak oso txukunak izan dira.

"*Espilue*", Aitor Rubio eta Mikel Urdangarin beraren gitarren, Angel Lopez-en perkusioaren eta "Txubio"-ren kontrabaxuaren gainean egin da. Hala ere izan zen gonbidatu mordoak

asko aberasten du diskoa; Jon Bews-en biolina, Aitor Garciaren gitarra flamenkoa, Kirmen Uriberen letrak esaterako.

Gaztea izan arren, Euskal Herriko kantautore garrantzitsuen artean kokatua dagoen musikari heldua dugu Mikel Urdangarin. Barren barrenetik kantatua eta razionalitatez grabatua dagoen lana: *Espilue*. Ia laster, herrian zuzen zuzenean ikusteko aukera izaten dugun, eh Zarra!

Sara Nieves txapeldun Jose de Azpiazu Kitarra Audizioan

Joan zen azaroaren 18an Eibarren egin zen kanporaketan Donostiarako txartela lortu eta gero, Sara Nievesek irabazi egin zuen Donostian bertan jokatu zuten finalean. Guztira 4 izan dira sariketa honetara aurkeztu diren plaentxiarrak; Oier Larreategi, Ines Laskurain, Marina Arruabarrena eta aipatutako Sara Nieves.



Horietatik Sarak bakarrik lortu zuen lehenengo hiruren artean sailkatzea eta halaxe lortu zuen azaroaren

26an Jose de Azpiazu audizio garrantzitsuan garaile izatea. **Zorionak denoi, batez ere Sarari!**



ICTUS eta AVC

Tronbosisa zela sortzen da ?

Oraingo honetan batez ere pertsona nagusiak jasan ohi duten gaitz bati buruz hitz egitea dagokigu. ICTUS delakoa pertsona nagusietan elbarritasun nerologikoa sortzen duen arrazoirik nagusienetakoa da.

Kalean entzun ohi dugu "Frantziko trombosisak jo ei dau...", eta hori esatean Ictus-ari buruz hitz egiten gabitzela jakin bihar dugu.

Nazio garatuetan heriotzen laurdenaren eragile dugu. Normalean Ictus-a jasaten duten pertsonetatik herena hil egiten da, beste heren batek elbarritasun garrantzitsu batez bizirik irauten du eta azkenengo herenak erreku-perazio ona egingo du autonomia berreskuratuz.

Giza burmuinak behar beharrezkoak du azukre eta oxigeno kopuru minimo bat ongi funtzionatu dezan eta hauen falta gertatzen denean

lesio larriak sortu ohi dira.

Giza gorputzak era honetako gaitzeri aurre egiteko defentsa bat du. Burmuinera odola leku bakar batetik bidali beharrean, bi lekutatik bidaltzen du, lepoaren aurrekal-detik eta lepoaren atzekal-detik. Horrela, giza burmuinak odola bi bide desberdinetatik hartzen du eta batek huts eginez gero bestea izango du, baina badaute txoko batzuek bi bideak heldu beharrean, bakarra heltzen dena eta hauetan lesioa gertatuko da odol falta ematen denean.

Ictus-en barnean bi tipotakoak aurki ditzakegu:

1. Ictus iskemikoak, hauek

arteria baten ostopatzeagatik sortzen dira, burmuinaren zati bat odolrik gabe, elikagai eta oxigeno gabe lagatzen dutelarik.

2. Odol jario-dun Ictusak, hauetan odol jarioa izaten da eta burmuin zati bat odolrik gabe, elikagai eta oxigeno gabe lagatzen dute burmuinhezurrean sortzen den presio handitzearen eraginez.

Ictusaren arrisku faktorerik garrantzitsuena adina da. Ictusen %30a 65 urte baino gutxiago dituzten gizabanakotan sortzen da, beste guztiak adin honetatik aurrera. Esan genezake 55 urtetatik aurrera pasatzen den hamarkada bakoitzeko ictus-a jasateko

posibilitatea bikoiztu egiten dela. Bestalde aurre egin diezaiokegun beste faktore batzuk ere aurki ditzakegu. Hauetan garrantzitsuena hipertentsioa dugu, tabakismoak, bihotzeko gaitzak, diabetesak, alkohol kontsumoak eta gehiegizko pisuak jarraituta. Beraz, elikagai eta oxigeno gabe gelditzen diren burmuin zatien arabera, lesio desberdinak aurkituko ditugu (sentsasio falta, beso zein hanketan, mugitzeko zailtasunak, hitz egiteko zailtasunak...).

Oier Oregi

Egin zaittez bazkide, gure hizkuntzak bihar zaittu

Elkarteko bazkide egitea urte osoan 3.000 pezeta bakarrik, eta 18 urte baino gutxiago badituzu eta jubilatua bazara 1.500 pezeta besterik ez. Agiri hau bete eta Pil Pilean udaletxepean duen buzoian bota.

Ondorengo kontu korranteetatiko baten sartu dezakezu dirua:

Euskadiko kutxa 3035 0004 9 0 0040015550

Kuxan 2101 0062 13 0123185746

PIL PILEAN KULTURA ELKARTEKO BAZKIDE IZAN NAHI DUT:

Izen deiturak: Jaiotze data:

Helbidea: Herria:

Herrialdea:

Telefono zenb.: Helbide elektronikoa:

Bejondeizula euskalzale, eskerrikasko zure laguntzarengatik !



Argazki Zaharra

1981ko Euskal Jaixa



A

rgazki honetan basarritar jantzita azaltzen dira, txintxo txintxo eta potxolo potxolo, hiru anai arreba; Itziar Agirre, Eneko Gallastegi, Zigor Gallastegi, Amaia Agirre eta Arkaitz eta Maitane Larrañaga. Zelako seikotia, edarrak sei. Polittaguak ziran txikittan ezta ?

Enara Agirre

Lehiaketa berrixa



Zela dauka izena argazkixan agertzen dan baserrixak ?

Erantzuna baldin badakizu deittu bildurrik barik gure telefonora, zure izen abizenak eta telefonoa emon eta zozketan sartuko zara.

943 75 13 04

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke.

Aurrekuaren soluziñua



...eta aurreko aleko irabazlia...



Oier Aranzeta



Ibilixan ibilixan bertso eskolia

Egoitz Unamuno

Gaztañerre egunian "Saltzen saltzen..." Ibilixan Ibilixan bertso eskolako ikasliak

Bertso eskolako ikasliak izan dira aurtengo Gaztañerre perixako gaztaiña saltzaile ofizialak. Lagunarteko negozio on baten ametsak itxaropenez piztu zeban goizeko 8:30 etarako bidoi zaharrian sua. Perixarako idatzitako bertsoak jentziaren bistan jarritta zittuztela, eguerdiko ordubietarako danboliñari buelta ta buelta, 35 bat kilo gaztaiña erre eta gero, bertso-

rigai gaztiok be nahikua erreta ziran. Hainbeste gaztaiña saldu eta gero, irabazixak kontatzeko ordua ez zan ustez behintzat hain une txarra. Baina, bainak be azaldu ziran orduan. Diru gutxitxo itxuraz hainbeste lan-ordurendako. Batak beti gaztaiñak erregalatzen zittuala, bestiak lurrera botatzen zittuala, prezio merkiegixa jarri zala...



Gaztaiña pila galanta erre zebeñ danbolinian

Danbolinari buelta egurrak suari gaztainak erre eta gaztiak kantari irrifarrez dozena erostaileari baina begiratziñ gero diruari zortzi bertsoariak zortzirak dantzari.

Negozio txarra da gaztaiña ta sua antzerakua da ba kantu ta bertsoa saltzeko merke eta egiten lantsua baina gustatuz gero dakarren mezua, dirua zatarrak da mamiña goxua.

Horoskopua

Ygarten Ygartendotela



ARIES martxoaren 21etik apirilaren 21era Loterixia tokatzekotan hurrengo bi astietan tokatuko jatzu. Ez zekena izan eta gogoratu lanekueri pastelak eruan bihar jakuezela!
Pil-eguna: 13



TAURUS apirilaren 22tik maiatzaren 21era Azkeneko Gaztainerre azoka egunian ederra "gaztaina" harrapatu zenduana. Noski, ohitura gabe daganak ezin dau txikiteua goizeko hamaiketan hasi...
Pil-eguna: 23



GEMINIS maiatzaren 22tik ekainaren 21era Oindio ez zarala ikasten hasi? Laister dira gainian gabonak eta gabonen ostian azterketak... Martxa honetan jua hortura kalabazak erittera! Bestela beste batzuk batuko ditzu eta!
Pil-eguna: 25



CANCER ekainaren 22tik uztailaren 22ra Gabonak urreratu ahala, eta gero eta hotz gehixago egitten daben chinian aukera gehixago izango ditzu zure ametsetako neska/mutila zure epelera urreratu dadin...
Pil-eguna: 14



LEO uztailaren 23tik abuztuaren 22ra Izan argi ez daguala zergaitik lagunen edo bikotiaren artian aukeratu bihar, baina ojo, danok batera ibili ezkeru kontu izan orain arte zure lagunik onena izan dxnaren begiak nora begira dauden...
Pil-eguna: 20




VIRGO abuztuaren 23tik irailaren 22ra Olentzerok zaku haundixa dauka eta hainbeste nahi dozun zerbait hori ekarriko dotu seguruen. Badaezpada erregieri be idatzi gutuna (zeinek daki...)
Pil-eguna: 1



LIBRA irailaren 23tik urriaren 22ra Inuzente aurpegi hori edukitzia ez da zure kulpaa, horrela egin zintzuten zure gurasaok, baina aurpegi hori dozula eta ez laga Abenduaren 28xan laguneri nahi dabena egitten!
Pil-eguna: 28




ESKORPIO urriaren 23tik azaroaren 22ra Zenbat bider esan bihar jatzu arraultza prijituak bihotz erria egitten dotsuela? Kontrolatu zure arraultzak (edo bikotiarenak...)
Pil-eguna: 12




SAGITARIUS azaroaren 23tik abenduaren 21era Umoro hori hobetzen ez badok/n ultzera urtego dusk minik gehixen egitten daben lekuan... (bakoitzak jakingo dau nun egitten daben min gauzak)!
Pil-eguna: 9



CAPRICORNUS abenduaren 22tik urtar. 20ra Bizkarreko minendako onena ordenagailuaren parian hainbeste ordu okertuta ez pasatzia da, CD-ROM unitatia erosi dozuenetik ez dotsazu argazki lizunak ikusteari lagatzen!
Pil-eguna: 17



ACUARIUS urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra Abenduaren 24ko arratsaldeko poteuan neurtu txikito kopurua, bestela aurtan be etxera juandakuan afarritarako dauden esparraguak mobitzen ikusiko ditzu (eta langostinuak dantzant...)
Pil-eguna: 5



PISCIS otsailaren 21etik martxoaren 20ra Plastikua gertu baldin badaukazu be jakin aurtan ez dozula Karakaten edurrik topaiko, baina bai ostia zure sorbaldeetan. Zaindu apurtxo bat kaspa hori...
Pil-eguna: 7



agenda

Gaztetxeko ekintzak

Abenduaren 6xan gabian

Lisabo + Mermaid taldien kontzertua

Abenduaren 22xan

Antzerkixa eta kontzertua

Abenduaren 23an

"Komunikazio inkomunikazioa" Interruptur Antzerki taldia eskutik

Abenduaren 30ian

El Señor no + Talde gonbidatu baten kontzertuak

Abenduaren 10ian

Memorial Atxa herri krossa



Korrika ibilbidiak: (ikusi 15. orrialdea)

1engo maila: 8 urterartekuak
 A-B-A: 800 METRO
2.maila: Benjaminak
 A-B-C-D-A: 1.600 metro
3.maila: Alebin infantilak
 A-B-C-D-E-F-A: 2.500 metro
4.maila: Kadetiak
 A-B-C-D-A-B-C-D-E-F-A: 4.100 metro
5.maila: Nagusixak 18 urtetik gorak
 A-B-C-D-E-F-A: 4 buelta 10.000 metro

Abenduaren 20xan arratsaldeko 7:30etan Elizan.

Gabon Kontzertua
Soraluze Musika Eskolia



Egitaraua:

Din-dan don, Haur txiki eder, Estando el señor don gato, Meister Jakoj, kanon, Adeste fideles, 12. Zenbakia Dibertimentua, Wie stark ist nicht dein Zanberton, Romance, Oñazez, My Lykyng, 3. Suiteko Aria Re nagustan, Gabon kantak, eta azkenik Summertime, lanak eskeiniko dira.

Dohaineko iragarkixak

Geriatría eta Klinika laguntzailia

Gaixo eta gaixo terminalak zainduko nittuzke Etxian, hospitalian baita gabez be 609 77 01 33 telefonora deittu

Pisu bat alokatzen da Jakan

Eski denboraldirako. Telefonoak: 943 75 30 38 943 83 39 92 gabez

Zeozer saldu, erosi edo iragarri nahi badozu hemen daukazu aukeria. Iragarkixa duhan jartzeko aukera paregabia

Deitu 943 75 13 04 telefonora

(Partikularren iragarkixak bakarrik)

Soraluzeko Polikiroldegixak sokorrista bat bihar dau

Interesatuak gerturatu kiroldegira edo 943 75 24 66 telefonora deittu



Zorionak!!!!

autobusak



Elena eta Alberto Madrid

3+2 urte 2.000 - 11 - 28
Zorionak pareja!!!
 Zelako haundixak egin zarien...
 Muxu haundi baina haundi bat.
 Etxekuen partez.

Jose Luque Martinez

2.000 - 11 - 11
Zorionak!!!
 Muxu haundi bat. Etxekuak.



Xuban Catalan

2+2 urte 2.000 - 12 - 30
Zorionak!!! GEOLOMAN
 Pil Pileko taldekidiak asko maitte
 zaittugu, hori badakizu.
 Pil Pileaneko zure lagunak

Kontxi Loidi

44 urte 2.000 - 12 - 5
Zorionak ama! Zure seme alabak
 bihotz bihotzetik.



Edu Pombar

2.000 - 12 - 3
 Gure lagun txiki eta serixua bazoiaz
 urtietan aurrera, segi holaxe!!!
 Beti bezin lagun ona izaten ! Aupa !
Zorionak!!! eta urte askotarako.
 Pil Pileanekuak eta kuadrilakuak

Iñaki Etxabe

39 urte 2.000 - 10 - 21
 Berandu bada be ez gara zutaz
 ahaztu.
Zorionak mutil!!!!
 Urte askotarako!

Arantxa Unamuno

42 urte
 Aupa tia! Segi gogor gogor eta
 orainarte moduan pagak emoten.
 Zure loibarik zaharrenen partez
 zorionak !

Pedro Santamaria eta

Juli Aranbarri

Zorionak eta urte askotarako.
 Segi gogor eta eskerrikasko lanbide
 gogor horri eustiarren. Herrixak asko
 maitte zaittue.
Pil Pileaneko taldekide danon
partez.



Hiart Velazquez Gorrotategi

2 + 3 urte 2.000 - 12 - 16
Zorionak neskato!!!!
 Gure etxeko ume txikixa zana, neska
 liraina bihurtu jaku.
 Urte askotarako!!! Etxekuak.
ZORIONAK!!!!!!
 "Vuelve a casa vuelve"
 Zure laguneren partetik

Leire Soraluze

17 urteb 2.000 - 12 - 5
Zorionak!!! Segi orainarte bezain
 atsegina eta jatorra izaten.
 Lagunen partez.

Soraluze-Donostia:

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:55,
 8:45, 13:45, 14:45, 15:45, 19:45.
 Zapatu lan egunetan: 7:45, 8:45, 13:45, 14:45,
 19:45.

Igande eta jai egunetan: 10:15, 19:45

Donostia-Soraluze:

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:15,
 8:15, 12:00, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.
 Zapatuan eta lan egunetan: 8:15, 12:00,
 17:30, 19:30, 20:45.

Domeka eta jai egunetan: 17:30, 20:45.

Soraluze-Gasteiz:

Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:00,
 9:00, 11:00, 15:00, 18:15, 19:00.
 Zapatu lan egunetan: 7:00, 9:00, 11:00, 15:00,
 18:15, 19:00.

Domeka eta jai egunetan: 9:00, 11:00, 15:00,
 17:00, 18:15, 19:00, 21:00.

Gasteiz-Soraluze:

Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:30,
 8:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 20:30.
 Zapatu lan egunetan: 7:30, 8:30, 12:30, 16:30,
 18:30, 20:30.

Domeka eta jai egunetan: 8:30, 9:00, 10:30,
 12:30, 16:30, 18:30, 20:30.

Bergara-Soraluze (urbanuak):

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:10,
 7:20, 8:20, 9:20, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20,
 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20,
 20:20. Zapatu lan egunetan: 8:20, 10:20,
 12:20, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 18:20,
 19:20, 20:20

Domeka eta jai egunetan: 13:20, 15:20, 17:20,
 19:20, 20:20.

Soraluze-Bergara (urbanuak):

Astelehenetik barikura lan egunetan: 7:00,
 7:05, 7:45, 8:15, 9:00, 9:15, 10:15, 11:00,
 11:15, 12:15, 12:45, 13:00, 13:15, 14:15,
 15:15, 15:45, 16:15, 17:15, 18:15, 19:15,
 20:15, 21:15, 21:30.

Zapatu lan egunetan: 7:00, 9:00, 9:15, 11:00,
 11:15, 12:15, 12:45, 15:00, 15:15, 16:15,
 17:15, 18:15, 19:00, 19:15, 20:15, 20:45,
 21:15, 21:30.

Domeka eta jai egunetan: 9:00, 11:00, 14:15,
 15:00, 16:15, 17:00, 18:15, 19:00, 20:45,
 21:00, 21:15, 21:30.

Soraluze-Eibar (urbanuak):

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:30,
 7:40, 8:40, 9:40, 9:50, 10:40, 11:40, 12:40,
 13:40, 13:50, 14:40, 15:40, 16:40, 17:40,
 17:50, 18:40, 19:40, 20:40, 21:50.

Zapatu lan egunetan: 8:40, 10:40, 12:40,
 14:40, 15:40, 16:40, 17:40, 18:40, 19:40,
 20:40.

Domeka eta jai egunetan: 13:40, 15:40, 17:40,
 19:40, 20:40.

Eibar-Soraluze (urbanuak):

Astelehenetik barikura lan egunetan: 6:50,
 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00,
 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30,
 21:00.

Zapatu lan egunetan: 9:00, 11:00, 13:00,
 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:30,
 21:00.

Domeka eta jai egunetan: 14:00, 16:00, 18:00,
 20:45, 21:00.

Iruñea-Soraluze:

Astelenetik zapatara lan egunetan: 10:30,
 18:00. Domeka eta jai egunetan: 17:00, 20:30.
 Soraluze-Iruñea:

Astelehenetik-Iruñea:

Astelehenetik zapatara lan egunetan:
 7:45, 13:45. Domeka eta jai egunetan: 9:15,
 18:15.

jaixotakuak

Ane Moreno Oya 00 - 11 - 16

ezkondutakuak

Manuel Nuñez Gomez eta
 Raquel Leonardo Salamanca
 00 - 11 - 11



telefonoak

Udaletxea	943 753043
Faxa	943 753112
Udaltzaingoa	943 753024
Bake Epaitegia	943 751989
Arane Kiroldegia	943 752466
Osasun Etxea	943 752259
Larrialdiak-Elgoibar	943 743354
Larrialdiak- Donostia	943 461111
Zabaleta Botika	943 751384
Escala Botika	943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea	943 752330
Zaharren Egoitza	943 751136
Soraluze Kirol Elkartea	943 751029
Plaentxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza	943 751544
Lehen Hezkuntza	943 751937
Soraluze DBH Institutoa	943 752365
Euskaltegia -AEK-	943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria	943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	943 753017
Taxia	943 751993/ 607 220808
Postetxea	943 751947
Apaiatz Etxea	943 751370
Ertzaintza -Bergara-	943 765340
SOS Deiak	112

hildakuak

Ramón Ariznabarreta Larrañaga
 Alejandro Lugarizaristi Zabala
 Mª Jesús Zabaleta Bereicua

Oharra

Jubilatu eta 18 urtetik beherako pertsonak
 bazkide izatia nahi badabe 1.500 pezeta ordaindu
 biharko dittuzte bakarrik. Animatu eta egin zaitte
 bazkide !



iletargixan gorabeherak

Ilberri



Abendua 25



Abendua 11

Ilbete

Ilgora



Abendua 4



Abendua 18

Ilberhera

mezen ordutegixa

Astegunetan:

Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

Sapatutan:

Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

Domeka eta jai egunetan:

Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz),
 11:00tan (umeentzat euskeraz) eta
 12:30tan (elebiduna)



ABIZENAK EUSKARAZ



Euskaraz

**Zure abizenak
legez euskarara aldatzeko**

Behar duzun dokumentazioa

Karnetaren kopia

Non

Soraluzeko Udaletxeko Bake Epaitegian

Astearte eta Ostegunetan

GOIZEAN: 11etatik ordu 1era

ARRATSALDEZ: 6etatik 8etara

Noiz

Azaroaren 27tik abenduaren 15era

Informazioa: 943 75 30 43



Pil Pilean
Kultura Elkarte



Soraluzeko Udala



uek



mikel urdangarin
espilue



BIDE ERTZEAN
grisa



URREZTIETA KONEXION



MORAU



ARIMA BELTZA



fundiziyue



ENE BADA



gaztelupeko hotsak

94 p.k.20590 SORALUZE / Tel.: 943 75 30 16 / Faxa: 943 75 01 39 / www.hotsak.com / e-posta: gaztelupeko@hotsak.com

Disko guzti hauek Gaztelupe tabernan dituzu salgai

Pil Pilean edozeinek eta edonun irakurtzeko moduko aldizkarixa



Aldizkari honek Soraluzeko Udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

